

BERARIAZKO SARBIDE-PROBA

Zaldiketa

Erdi-mailako hasierako zikloa

1. Hautagaiak denbora eta modu egokian deskribatu du zaldia nola gidatu, eta halaxe egin du, animalia-aren adina, erabilera eta egoera aintzat hartuta eta murrizketa-metodoak segurtasunez baliatuta. Ezarritako helburuak bete egin ditu.

- a. Segurtasunez eta ezarritako protokolei jarraiki hurbildu zaio zaldiari boxean edo *paddock*-ean.
- b. Zaldia gidatzeko buru-uhala egokiro jarri eta, eskuineko eskuaz gidatuta, ibilaldi bat egin du zaldiarekin, seguru eta ezarritako protokoloaren arabera.
- c. Zaldiaren egoera fisikoa islatzen dituzten zantzu onak eta txarrak antzeman ditu. Horiek oinarri, gai izan da zaldiaren ongizate-maila jakiteko.

PROBA ERLAZIONATUA: ZALDIA GIDATZEKO PROBA PRAKTIKOA.

- Zaldiarengana gerturatu boxean edo *paddock*-ean.
 - Animalia-aren egoera fisikoa, gogo-aldarte eta izaera aztertu.
 - Zaldia gidatzeko buru-uhala jarri.
 - Zaldizkoa lurrean egonda, zaldia boxetik azterketa-gunera eskuarekin gidatu, eta segurtasun-korapilo bat baliatuta lotu, animalia garbitu eta zaldiz ibiltzeko ekipamendua jarri ahal izateko.
2. Hautagaiak zaldia garbitu du. Horretarako, garbiketa-teknikak erabili ditu, bai eta animalia-aren zurdak eta buztana konpontzeko teknikak ere.
- a. Egokiro garbitu du zaldia, tresna aproposak baliatuta eta animalia-aren higie-nearekin lotutako oinarri-zko printzipioei jarraiki.

- b. Zaldiaren ile-ezaugarrien arabera egikaritu ditu zurden eta buztanaren ile-konponketetarako teknikak.
- c. Box bat (ohea, janontzia eta edontzia) garbitu du ezarritako protokoloak aintzat hartuta eta ukuluko materialak eta tresnak segurtasunez erabilia.

PROBA ERLAZIONATUA: ZALDIAREN ETA BOXAREN GARBIKETA- ETA EGOKITZE-PROBA PRAKTIKOA.

- Zaldia oso-osorik garbitu.
- Zurdak, buztana eta txirikorda konpondu.
- Ohea eta boxa garbitu.

3. Hautagaiak zaldiz ibiltzeko ekipamenduak hautatu, jarri eta zaindu ditu. Horretarako, ekipamenduen ezaugarriez jabetu da, ezarpen-teknikak aztertu eta ekipamenduak garbitzeko teknikak baliatu ditu.

- a. Zaldiz ibiltzeko eta lan egiteko ekipamenduen atal guztiak ezagutu ditu.
- b. Ekipamendu egokienak aukeratu ditu, ezaugarri morfologikoak eta egin beharreko diziplina kontuan hartuta.
- c. Ekipamendua zaldira egokitzeko, animalia jartzeko eta kentzeko, eta, ondoren, hura biltegitzako zereginen sekuentziak bete ditu.
- d. Zaldiari ekipamendua jartzean gertatu ahal diren arazoak antzeman eta konpondu ditu.
- e. Eskuaz gidatuta aurkeztu du animalia, zaldiz ibiltzeko ekipamenduak segurtasun-baldintzak betetzen dituela.
- f. Desegoki edo gaizki jarritako ekipamenduaren marruskadurak zaldiari urratuak eta zauriak non eragin diezazkiokeen ezagutu du, eta saihesteko neurriak jarri ditu.

g. Zaldi baten ekipamendu osoa garbitu du. Horretarako, material eta garbiketa-produktu aproposak baliatu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: EKIPAMENDUA MUNTATZEKO, JARTZEKO ETA GARBITZEKO PROBA PRAKTIKOA.

– Hautagaiari gutxienez hiru motatako ekipamenduak (zelak, buru-oihalak, babesak eta hedeak) aurkeztuko zaizkio, guztiak desmuntaturik. Egitekoa hauxe izango da:

- Erabilitako materiala garbitu.
- Ekipamendua muntatu.
- Zaldiz ibiltzeko ekipamendua animalia-aren gainean jarri.
- Animalia eskuaz gidatuta pistan aurkeztu, zaldiz ibiltzeko ekipamendua jarrita.
- Ekipamendua kendu eta desmuntatu.

4. Zaldira igo aurretik, hautagaiak animalia-aren portaera ebaluatu du; ezaugarri fisikoak, izaera eta gaitasunak antzeman eta aztertu ditu, bai eta zaldiz ibiltzea muga edo galarazi dezaketen anomalia fisikoak ere.

- a. Erabilitako animalia-aren izaera eta horrek zaldiaz ibiltzeari nahiz hura gidatzeari begira izan ditzakeen eraginak deskribatu ditu.
- b. Zaldizkoa lur-rean dagoela egiten den lanari buruzko prozedura praktikoak deskribatu ditu. Aipatu jardunbideek zaldiz ibiltzean animaliak izan dezakeen portaeraren balorazioa sakontzen lagun dezakete.
- c. Animalia-aren izaera eta aiurriarekin bat egiten duten zaldira igo aurreko lan-sistemak ezagutu ditu.
- d. Zaldia mugitzen ari dela bere egoera fisikoa eta gogo-aldartea zehazten dituzten faktoreak deskribatu ditu.
- e. Zaldira igotzeko eta zalditik jaisteko uneak direla eta, animaliak izan ditzakeen erreakzioak antzeman ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: ANIMALIA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK.

– Orain arteko proba praktikoen ostean -zaldia gidatzekoa, animalia- eta boxaren garbiketa zein egokitzapenaren gainekoa, eta ekipamendua muntatzeko, jartzeko eta garbitzekoari buruzkoa-, hautagaiak ahoz erantzungo die azterketa-epaimahaiaren galderari, zeinak zaldiak hainbat unetan -boxean, gidatua izan denean, ekipamendua garbitu bitartean eta gainean jarri zaionean, eta zaldizkoa lurrean egonda egindako lanetan- erakutsitako izaerarekin, egoera fisikoarekin eta portaerarekin lotuta egongo diren.

f. Zaldia mugitzen ari dela bere egoera fisikoa eta gogo-aldarteak zehazten dituzten faktoreak deskribatu ditu.

g. Zaldiz ibiltzean animaliak izan dituen erreakzioak deskribatu ditu. Erantzun horiek zaldiz berriro ibiltzean zenbait neurri hartu behar izatea eragin dezakete.

h. Zaldiz ibiltzean animalia- izaerari eragin dioten ingurumen- eta kanpo-faktoreak deskribatu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: ANIMALIA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI BITARTEAN

– Zaldiz ibiltzeko proba praktikoa egin bitartean, hautagaiak azterketa-epaimahaiaren galderari ahoz erantzungo die. Galderak izango dira zaldiz ibili bitartean animalia- portaerari eragiten dioten faktoreei buruzkoak.

5. Hautagaia zaldiz ibili da, pista barruan zein kanpoan. Zaldiketaren oinarrizko teknikak deskribatu ditu, eta eraginkortasunez eta teknika egokia/zuzena erabiliz ibili da pausoka, trostan eta galopan (zaldiaren hiru aireak).

a. Zaldira igotzeko eta zalditik jaisteko teknikarik aproposenak aukeratu ditu.

b. Zaldira igotzeko eta zalditik jaisteko segurtasun-protokoloak bete ditu, eta ekintza biak egiteko teknika egokiak erabili ditu.

c. Egokiro jesarri eta jarri da zaldi gainean.

d. Beroketa egin bitartean, hiru aireetan aritu da, ointokiak baliatuz nahiz haien laguntzarik gabe, egokiro eserita eta jarrita, eta jakintza teknikoa eta segurtasuna erakutsita.

e. Heziera-proban, teknika aproposak baliatu ditu erraztasunez, zuzentasunez eta eraginkortasunez mugitzeko, zaldian hiru aireetan bilakaera izateko, eta geldialdiak, trantsizioak eta pistako berariazko irudiak egiteko. Hori guztia lortzeko, ondokoak hartu ditu kontuan: batetik, egokiro jesartzeko eta jartzeko moduak; bestetik, zaldia hiru aireetan gidatzeko eta geldialdiak zein trantsizioak egiteko lagungarrien erabilera. Halaber, zaldia bultzadari, kadentziari, orekari, arteztasunari eta egikaritzearen zuzentasunari dagokienez izandako jarrerari erreparatu dio.

f. Zaldiz ibili bitartean, hautagaiak ariketak egiteko zein lagungarri eta zertarako erabili dituen deskribatu ditu.

g. Oztopo-jauzien proba gainditzeko trebetasun eta teknika nahikoak erakutsi ditu, hala trostan nola galopan. Horretarako, aintzat hartu ditu jesartzeko, jartzeko eta orekari eusteko moduak eta lagungarrien erabilera, bai eta zaldia izandako jarrera ere, bultzadari, kadentziari, orekari, arteztasunari, jauzia egiteko bulkada-puntuari eta egikaritzearen zuzentasunari dagokienez.

h. Kros-ibilbidea gainditzeko trebetasun eta teknika nahikoak erakutsi ditu, hala trostan nola galopan. Horretarako, kontuan hartu ditu esertzeko, jartzeko eta orekari eusteko moduak eta laguntzen erabilera, bai eta zaldia izandako jarrera ere, bultzadari, kadentziari, orekari, arteztasunari, jauzia egiteko bulkada-puntuari eta egikaritzearen zuzentasunari dagokienez.

i. Proba praktikoa egin bitartean, zaldia izandako portaera desegokiei aurre egiteko erabaki aproposak hartu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: ZALDIZ IBILTZEKO PROBA PRAKTIKOA

- Animalia eskuaz gidatuta pistan aurkeztu, zaldiz ibiltzeko ekipamendua jarrita.
 - Zaldira igo, gutxienez bi prozedura erabilia.
 - Banako beroketa egin, hiru aireetan ibilita, eta ointokiak baliatuta zein baliatu gabe.
 - Pistan, hiru aireetako bilakaerak erakusteko banako proba gauzatu. Bitartean, geldialdiak, trantsizioak eta pistako irudiak egin.
 - 8 oztopoz osatutako jauzi-proba (*hunter* mota) egin, trosta eta galopa txandakatuz. Oztopoak zenbait eratakoak izango dira, eta 0,80 metroko altuera izango dute.
 - Gutxienez 1.000 metroz eta 8 oztopoz osatutako promozio-mailako zailtasun teknikoko kros-ibilbidea bete. Oztopoek 0,80 metroko altuera izango dute gehienez -atal finkoan-.
- j. Zaldira igotzeko eta zalditik jaisteko teknikarik egokienak deskribatu ditu.
 - k. Zaldizkoaren aulkian esertzeko modua eta jarrera deskribatu ditu.
 - l. Alde batetik, zaldizkoaren lagungarriak deskribatu ditu, zaldiarengandik erantzun aproposak jasotzeko; bestetik, lagungarriok nola erabili, konbinatu eta koordinatu diren azaldu du.
 - m. Kasu bakoitzeko lagungarri ohikoenen aplikazio-akatsak deskribatu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: ZALDIKETA-TEKNIKARI BURUZKO PROBA TEORIKOA

- Zaldiketa-teknikari buruzko proba idatzia egin:
 - Jesartzeko modua eta jarrera.
 - Lagungarriak. Lagungarrien konbinazioa eta aplikazioa.

- Zaldiketako aireak. Definizioa eta sekuentziak.
- Laguntzen aplikazioarekin loturiko hutsegite ohikoenak.

6. Hautagaiak ukuiluaren oinarrizko ezaugarriak ezagutu ditu. Horretarako, egikaritze- eta segurtasun-teknika eta arau nagusiak deskribatu ditu, bai eta zaldizkoa lurrean dagoela lan egiteko, zaldiz ibiltzeko eta animalia garbitzeko materialak eta euskarri-instalazioak ere.

- Ukuilu bateko instalazio nagusien diseinurako oinarrizko baldintzak zehaztu ditu. Betekizun horiek badakizki, eta zaldien segurtasunari eta erosotasunari begirako material egokiak aipatu ditu.
- Oheetarako materialak zerrendatu ditu.
- Zaldizkoa lurrean egonda zaldia eskuaz gidatzeko eta zaintzeko prozedurak ezagutu ditu.
- Ilea mozteko eta tresnen mantentze-lanak egiteko teknikak deskribatu ditu.
- Ekipamendua jarri aurretik zaldiaren gidatze espezifikoak osatzen dituzten zereginen sekuentziak deskribatu ditu.
- Zaldiz ibiltzeko baliatzen diren instalazioak zerrendatu ditu.
- Egin beharreko lan zehatzetarako zein instalazio erabili behar diren aipatu du.
- Zaldi gaineko lanari begirako laguntza-materialak ezagutu, deskribatu eta aukeratu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: ZALDIA ETA ZALDIZ IBILTZEKO MATERIALAK NAHIZ INSTALAZIOAK PRESTATZEKO PROBA TEORIKOA

- Zaldia gidatzearen eta zaintzearen gaineko proba idatzia egin:
 - Ukuiluen garbiketa, ohe-motak.
 - Zaldiaren garbiketa.

- Zaldia eta ukuiluak garbitzeko tresnak.
- Txirikordak eta ilea moztu.
- Zaldiz ibiltzeko ekipamendu-motak. Ahokadurak. Babesak. Gida-uhal osagarriak.
- Zaldiketarako kirol-instalazioak, materialak eta ekipamenduak.
- Proba idatzi baten bidez, hautagaiak zaldiketarako kirol-instalazioen, materialen eta ekipamenduen gainean erantzungo du.

BERARIAZKO BETEKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAREN ANTOLAKETA:

1. PROBA PRAKTIKOA:

- 1.1. ZALDIA GIDATZEKO PROBA PRAKTIKOA.
- 1.2. ZALDIAREN ETA BOXAREN GARBIKETA- ETA EGOKITZE-PROBA PRAKTIKOA.
- 1.3. EKIPAMENDUA MUNTATZEKO, JARTZEKO ETA GARBITZEKO PROBA PRAKTIKOA.
- 1.4. ZALDIZ IBILTZEKO PROBA PRAKTIKOA.

2. AHOZKO PROBA:

- 2.1. ANIMALIA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK.
- 2.2. ANIMALIA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI BITARTEAN.

3. PROBA IDATZIA:

- 3.1. ZALDIKETA-TEKNIKARI BURUZKO PROBA TEORIKOA.
- 3.2. PROBA ERLAZIONATUA: ZALDIA ETA ZALDIZ IBILTZEKO MATERIALAK NAHIZ INSTALAZIOAK PRESTATZEKO PROBA TEORIKOA.

BERARIAZKO PROBA EGITEKO OINARRIZKO BALDINTZAK: GUNEAK ETA EKIPAMENDUAK.

Guneak:

- 40-60 m² bitarteko ikasgela.
- Jauzi-pista. Gutxienez, 1.600 m² izan behar ditu.
- 1.000 m inguruko ibilbidea egiteko landa-eremu garbia.

Ekipamenduak:

- Zaldi bat, gutxienez, bi hautagaiko, egunero; animaliak probak egiteko gaitasuna izan behar du.
- Espezialitateetarako ekipamendu osoak.
- Pistarako oztopo-sorta, 4 bertikal eta 4 sakon eta boleak muntatu ahal izateko.
- Gutxienez, 8 oztopo. Horietako 4, gutxienez, iraunkorrak izango dira, eta kros-proban muntatuko dira.